

JAMES COOK

Iñaki Azkune Mendia

Ingalaterran Yorkshire-ko Marton-en (Cleveland-en) 1728.eko otsailaren 28an jaioakotasunaz hau batez ere Ozeanoetan zehar nabigatuz lurralde berriak deskubritu zituelako da ezaguna. **Dena den, kartografia dietetika eta behaketa astronomikoen arloan ere zientzari egindako ekarpena ez zen txikia izan eta, horregatik, hemen berri ematea interesgarria dela derizkiogu.**

James Cook nekazari pobrez baztuen semea zen eta oso gazterik denda batean hasi zen lanean. Gero **untzigitze batzuekin ofizioa ikasi eta bere merituei esker kabotaiuntzietan nabigatuz kontramaisu egin zuten.** Zortzi urtez aritu zen Ipar itsasoan merkataluntzietan, 1755.ean Itsas Armadara sartu zen arte. 1759.ean kapitain gradua lortu zuen eta J. Wolfe-ren Quebec-en kontrako espedizioan izan zen.

Urrutiko itsasoetara egindako bidaiak, Ozeanoek eta Lurraz geografikoki zuten izaera hobeto ezagutzeko ziren. 1760.az gero urte batzuk igaro zituen **Labrador eta Ternuako kostaldea esploratuz.** 1766.eko abuztuaren 5ean, **Eguzki-eklipsea aztertu zuen Ternuako Ray lurmuturretik.**

1768. urtean, Royal Society-ren babespean eta Almirantegoaren aginduz Ozeano Bareko hegoalderako espedizioan buru izan zen. Endeavour untzian joan zen

Artizarra Eguzkiaren aurrean noia igarotzen zen ikustera. Tahiti iriatik egin zizkieten aipatutako bi astroei beren azterketak. Ondoren irila eta artxipelagoa bere erregearentzat konkistatutaz jo zituen, Sozietate Irlak izena (Royal Society-ren ohorez) ipini zielarik.



Zeelanda Berriaren inguruan ere ibili zen, irlen mapa egin zuelarik. Australiako hegoekialdeko kosta ikusi zuen (1770.eko apirilaren 19an). **Ekialdeko kosta inguratuz europarrek artean esploratu gabe zeukaten kontinente haren taimainaz jabetu zen, eta 1770.eko abuztuaren 23an bere erregearen lurraldetzat aldarrikatu zuen.** Esperantza Oneko itsasartetik 1771.ean Britainia Handira itzuli zen, baina 1772.ean (uztailaren 13an) bi untzirekin beste espedizio handi bati ekin zion. Hegoaldeko itsasoetara abiatu zen eta Australia alde batera utzita An-

tarktiar Zirkulu Polarreraino beste kontinente handirik ez zegoela frogatu zuen. Beraz, poloak izan ezik, Lurreko itsaso guztiak aurkiturik zeuden.

Ozeano Barera egindako bigarren espedizio hartan, Cookek Lind-en dietetikari buruzko teoriak probatu ahal izan zituen. Marinelei limoia janaraziz eskorbutu-arazorik ez zuen eduki, adibidez. Horregatik Royal Society elkarteak domina eman zion.

Ozeano Barera (bere hirugarren espedizio nagusira) 1776.eko uztailaren 12an abiatu zen, Resolution eta Discovery untziekin. Ozeano Barean iparraldetik hegoaldera nabigatu zuen eta helburua Ozeano Baretik Atlantiar Ozeanora pasabideren bat aurkitzea zen, baina porrot egin zuten, noski.

1778.ean Sandwich Irlak aurkitu zituen Hawaii eta handik Iparramerikako kostaldea aztertzerara abiatu zen. Bering itsasarteko izotzak zirela eta, Hawaiiira itzuli zen. Bertako biztanleei janariak kentzen zizkieten eta tirabirak sortu ziren. Cook berak hawaitar bat hil zuen, eta Cook berriz, sastagaiz jota hil zuten Kealakekua-ko badian 1779.eko otsailaren 14ean.